

Lanerako Idazkiak



Impresos y apoyo para el trabajo en euskera



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

euskararen
donostia
p a t r o n a t u a

Eskuartean duzun argitalpenak erraztasunak eman nahi dizkizu euskara lan esparruko idatzietan erabiltzeko zenbait aholku, ohar, eredu eta adibide eskainiz. Tresna baliagarria izan nahi du euskara normaltasunez eta gero eta maiztasun handiagoz erabiltzeko ahalegin berezia egiten ari zareten merkatari eta enpresari donostiarrentzat.

Donostiako Euskararen Udal Patronatuak Gipuzkoako Merkatarien Elkartea, Gipuzkoako Ostalarien Elkartea, DendaSS, Zaharrean, Auzoak eta Centro-Erdi elkarteekin elkarlanean kaleratu du argitalpen hau eta Donostiako merkatarien artean banatu du. Era berean, argitalpena interneten ere eskura izango duzu Euskararen Udal Patronatuaren www.euskaraz.net web orrian.

Euskararen Udal Patronatua

Esta publicación quiere facilitarle la utilización del euskera en cualquier documento de trabajo asesorándole con diferentes modelos, notas y ejemplos que le servirán de ayuda. La guía pretende ser un soporte práctico para los comercios y empresas donostiaras que están tratando de utilizar el euskera con normalidad o con la mayor asiduidad y presencia posible.

El Patronato Municipal de Euskera ha publicado esta guía en colaboración con la Asociación Mercantil de Gipuzkoa, la Asociación de Empresarios de Hostelería de Gipuzkoa, DendaSS, Zaharrean, Auzoak y Centro-erdi, distribuyéndola entre los y las comerciantes donostiaras. Así mismo, se puede acceder al contenido de la guía a través de la página web del Patronato Municipal de Euskera www.euskaraz.net.

Patronato Municipal de Euskera



1. CONTENIDOS GENERALES / EDUKI OROKORRAK

1.1. Tipos de establecimiento / Establezimendu motak	1
1.2. Direcciones / Helbideak	4
1.3. Números, horarios y fechas / Zenbakiak, ordutegiak eta datak	6
1.4. Abreviaturas / Laburtzapenak	10
1.5. Rótulos y carteles informativos / Errotuluak eta informazio oharrak	12

2. MODELOS DE DOCUMENTOS DE TRABAJO / LANERAKO IDAZKI EREDUAK

2.1. Cartas comerciales / Gutun komertzialak	17
• Estructura de la carta y frases modelo / Gutunaren egitura eta esaldi ereduak	17
• Modelos de cartas / Gutun ereduak	21
- Solicitud de información o material / Informazioa edo materiala eskatzekoa	21
- Certificado / Egiaztagiria	23
- Convocatoria de reunión y acta / Bilera-deia eta akta	24
- Reclamaciones / Erreklamazioak	26
2.2. Impresos / Inprimakiak	28
• Fax / Faxe	28
• Hoja de pedido / Eskatera-agiria	29
• Albarán / Emate-agiria edo albarana	30
• Factura / Faktura	31
• Recibo / Ordainagiria edo erreziboa	32
• Cheque / Txekea	33
• Nómina / Nomina	34
• Hoja de reclamaciones / Erreklamazio orria	35
• Compromiso de adhesión al sistema de arbitraje / Arbitraje sistemara atxikitzeko konpromisoa	36
• Impresos municipales / Udal inprimakiak	37
- Solicitud de licencia de apertura de actividad clasificada/exenta y de obra menor / Jarduera sailkatua / salbuetsia zabaltzeko lizentzia eskabidea (obra txikia eta guzti)	37
• Solicitud de Alta o baja / Alta edo baja eskabidea	38
- Solicitud de alta o baja en la seguridad social / Alta edo baja eskabidea gizarte segurantzaz	38

2.3. Kontratuak / Contratos	39
• Contratos de compraventa / Salerosketa kontratuak	39
- Compraventa de vivienda / Etxebizitza salerosketa	39
• Contratos laborales / Lan-kontratuak	41
- Contrato laboral indefinido / Lan-kontratu mugagabea	41
- Contrato de duración determinada / Iraupen jakineko lan-kontratua	43
- Comunicación de prórroga de contrato de trabajo / Lan-kontratuaren luzapenaren jakinarazpena	45

3. MODELOS PARA IMPRENTAS / INPRENTETARAKO EREDUAK

3.1. Invitaciones / Gonbitak	47
• Boda / Ezkontza	47
• Bautizo / Bataioa	48
• Merienda / Askaria	48
• Inauguración / Inaugurazioa	49
3.2. Felicitaciones / Zorion-agurrak	50
• Cumpleaños y aniversario / Urtebetetze eta urtemugak	50
• Navidad / Gabonak	50
3.3. Pésame / Doluminak	51
• Condolencias / Doluminak ematekoak	51
• Agradecimiento / Eskertzea	52
3.4. Recordatorios / Oroigarriak	53
• Primera comunión / Lehen jaunartzea	53
• Fallecimiento / Heriotza	53
3.5. Boleto de sorteo / Zozketa-txartela	54
• Lotería de Navidad / Gabonetako loteria	54



Contenidos generales **Eduki orokorrak**

Tipos de establecimiento
Establezimendu motak

Direcciones en euskera
Helbideak euskaraz

Números, horarios y fechas
Zenbakiak, ordutegiak eta datak

Abreviaturas
Laburtzapenak

Rótulos y carteles informativos
Errotuluak eta informazio oharrak

Tanto en los rótulos como en las cartas comerciales, el nombre propio irá delante del tipo de establecimiento

Errotuluetan edota merkataritza-gutunetan, izen propioa establezimendu motaren aurrean jarriko dugu

NEREA zapata-denda

RIU TOURS bidaia-agentzia

IRUN argiztapena

MASTER GROS etxetresna elektrikoak

Diccionario / Hiztegia

abastecimiento: **hornidura**

abastecimiento industrial: **industri hornidura**

academia: **akademia**

agencia de viajes: **bidaia-agentzia**

aislamientos eléctricos: **isolamendu elektrikoak**

albañilería: **igeltserotza**

almacén: **biltegia**

alquiler de automóviles: **ibilgailuen alokatzea**

antenas: **antenak**

ascensores: **igogailuak**

asesoría: **aholkularitza**

autocares: **autobusak**

autoescuela: **autoeskola**

entidad bancaria: **banketxea**

bar: **taberna**

bodega: **ardandegia**

cafés: **kafe-denda**

cafetería: **kafetegia**

carnicería: **harategia**

carpintería: **aroztegia**

carrocería: **karrozeria**

central lechera: **esne-zentrala**

centro escolar: **ikastetxea**

centro de formación: **ikastegia**

centro médico: **osasun zentroa**

charcutería: **urdaitegia**

climatización: **klimatizazioa**

clínica dental: **hortz-klinika**

clínica: **klinika**

concesionario: **kontzesionarioa**

congelados: **izoztuak**

copistería: **kopia-denda**
cristalería: **kristaldegia, beirategia**
discoteca, sala de fiestas: **dantzalekua**
distribuidora: **banaketa-etxea, banatzailea**
droguería: **drogeria**
editorial: **argitaletxea**
electricidad: **elektrizitatea**
electrodomésticos: **etxetresna elektrikoak**
embalajes: **paketatzeak**
escuela de idiomas: **hizkuntza eskola**
espectáculos: **ikuskizunak**
estanco: **estankoa, tabako-denda**
extintores: **su-itzalgailuak**
farmacia: **farmazia, botika**
ferretería: **burdindegia**
floristería: **loradenda**
fontanería: **iturgintza**
fotografía, tienda de material fotográfico: **argazki-denda**
frutería: **fruta-denda**
funeraria: **ehorztetxea**
garaje: **garajea**
gestoría: **gestoria**
gimnasio: **gimnasioa**
grúas: **garabiak**
herboristería: **belar-denda**
hipermercado: **hipermerkatua**
hostal: **ostatua**
hotel: **hotela**
iluminación: **argiztapena**
imprensa: **inprimategia**
inmobiliaria: **higiezinaren agentzia**
instituto: **institutua**
instrumentos musicales: **musika-denda, musika-tresnak**
investigación: **ikerketa**
joyería: **bitxi-denda, bitxitegia**
juguetería: **jostailu-denda**
lavacoches: **auto-garbitokia**
lavandería: **garbitokia, ikuztegia**
lencería: **lentzeria, mihise-denda**
librería: **liburu-denda**
manualidades: **eskulanak**
maquinaria agrícola: **baserriko makinak**
material de oficina: **bulegoko tresneria/tresnak/materiala**

mercería: **mertzeria**
 mueblería, tienda de muebles: **altzari-denda, altzariak**
 notaría: **notaritza**
 óptica: **optika**
 panadería: **okindegia**
 papelería: **papertegia, paper-denda**
 pastelería: **gozo-denda, gozotegia**
 peletería: **larru-denda**
 peluquería: **ile apaindegia/ile-apaindegia**
 perfumería: **lurrin-denda, perfume-denda, perfumeria**
 pescadería: **arrandegia**
 piensos: **pentsuak**
 platos preparados/cocinados: **janari prestatuak**
 productos de limpieza: **garbigarriak**
 quincallería: **kinkila-denda**
 relojería: **erloju-denda**
 reparación de calzado: **zapata-konponketa, zapataria**
 restaurante: **jatetxea**
 rotulación: **errotulazioa, errotulugintza**
 rótulos: **errotuluak**
 salón de belleza: **estetika-zentroa, estetika-etxea**
 sanitarios: **komun-ontziak, higiene-ontziak**
 seguros: **aseguruak**
 servicio de traducción: **itzulpen-zerbitzua**
 sidrería: **sagardotegia**
 sonorización: **soinu-instalazioak**
 supermercado: **supermerkatua**
 taller mecánico (de coches): **auto-tailerra, ibilgailu-tailerra**
 taller: **tailerra, lantegia**
 tapicería: **tapiztegia**
 taxis: **taxiak**
 tejidos: **ehun-denda**
 tienda de comestibles: **janari-denda**
 tienda de deportes: **kirol-denda**
 tienda de regalos: **opari-denda**
 tienda de ropa: **jantzi-denda, arropa-denda**
 toldos: **toldoak**
 transportes: **garraioak**
 viajes: **bidaia, bidaia-agentzia**
 vivero: **haztegia, mintegia**
 vulcanizados: **bulkanizatuak**
 zapatería: **zapata-denda**

Cada ayuntamiento tiene su callejero oficial. En la web (www.euskaraz.net/toponimia/kaleak) del Patronato Municipal de Euskera de Donostia puedes consultar el de Donostia. Algunas explicaciones útiles Tokian tokiko udalak kale-izendegi ofiziala du. Donostiako Euskararen Udal Patronatuko web orrian (www.euskaraz.net/toponimia/kaleak) Donostiako kale-izendegia duzu. Halere, hainbat argibide emango ditugu

Lista de NOMBRES GENÉRICOS / IZEN GENERIKOEN zerrenda

	EJEMPLOS / ADIBIDEAK
alameda: zumardia	<i>Gamon zumardia</i>
alto: gaina	<i>Errondo gaina</i>
avenida: hiribidea edo etorbidea	<i>Nafarroa hiribidea</i>
barrio: auzoa	<i>Antigua auzoa</i>
calle: kalea	<i>Portu kalea</i>
callejón: kalexka	<i>San Bartolome kalexka</i>
calzada vieja: galtzada zaharra	<i>Egia galtzada zaharra</i>
calzada: galtzada	<i>Olaeta galtzada</i>
camino: bidea	<i>Zubiberri bidea</i>
carretera: errepidea	<i>Oiartzungo errepidea</i>
grupo: auzunea	<i>Alaiondo auzunea</i>
parque: parkea	<i>Lau Haizeta parkea</i>
pasaje: pasaia	<i>Iruresoro pasaia</i>
paseo: pasealekua edo ibiltokia	<i>Gernikako Arbolaren pasealekua</i>
plaza, plazuela, plazoleta: plaza edo enparantza, plazatxo	<i>Benta Berri plaza</i>
puente: zubia	<i>Burdinazkoa zubia</i>
travesía: zeharkalea, zeharbidea	<i>Rodil zeharbidea</i>
urbanización: urbanizazioa	<i>Ettxadi urbanizazioa</i>

Algunas ABREVIATURAS útiles / Zenbait LABURDURA erabilgarri

Alameda	<i>zum. (zumardia)</i>
Avenida	<i>etorb. (etorbidea)</i>
Bajo	<i>beh. (behea)</i>
Calle	<i>k. (kalea)</i>
Casa	<i>etx. (etxea)</i>
Centro	<i>zen. (zentroa)</i>
Derecha	<i>esk. (eskuina)</i>
Escalera	<i>eskra. (eskailera)</i>
Escalera izquierda	<i>ezk.-ko eskra. (ezkerreko eskailera)</i>
Izquierda	<i>ezk. (ezkerra)</i>
Paseo	<i>pas. (pasealekua)</i>
Plaza	<i>pl. (plaza)</i>
Polígono	<i>pol. (polígono)</i>
Portal	<i>at. (ataria)</i>
Sin número	<i>zk.g. (zenbakirik gabe)</i>
Travesía	<i>zehb. (zeharbidea)</i>
Zona industrial	<i>ind. (industrialdea)</i>

Algunos EJEMPLOS de direcciones / Helbideen hainbat IDAZKERA-ADIBIDE

Para expresar el n° ordinal del piso, al número se le añade un punto (.) que se lee **-garren**

Zenbatgarren solairua den adierazteko, zenbakiari puntua (.) jartzen zaio eta **-garren** irakurtzen da

Urbietta, 8, 2º izda.	<i>Urbietta, 8, 2.ezk. (Urbietta, zortzi, bigarrena ezkerra)</i>
C/ Urbietta, 8, 2º izda.	<i>Urbietta k., 8, 2.ezk. (Urbietta kalea, zortzi, bigarrena ezkerra)</i>
Calle Urbietta, 8, 2º izda.	<i>Urbietta kalea, 8, 2.ezk.</i>
Pz Easo, 7, 3º-B	<i>Easo pl., 7, 3-B (Easo plaza, zazpi, hirugarrena B)</i>
Plaza Easo, 7, 3º-B	<i>Easo plaza, 7, 3-B</i>
Ps de Anoeta, s/n	<i>Anoeta pas., zk.g</i>
Paseo de Anoeta, s/n	<i>Anoeta pasealekua, zk.g</i>
Paseo de Anoeta, sin número	<i>Anoeta pasealekua, zenbakirik gabea</i>

NÚMEROS CARDINALES / ZENBAKI KARDINALAK

0 : zero	18 : hemezortzi (hamazortzi)	100 : ehun
1 : bat	19 : hemeretzi	200 : berrehun
2 : bi	20 : hogei	300 : hirurehun
3 : hiru	21 : hogeita bat	400 : laurehun
4 : lau	22 : hogeita bi	500 : bostehun
5 : bost	23 : hogeita hiru	600 : seiehun
6 : sei		700 : zazpiehun
7 : zazpi	30 : hogeita hamar	800 : zortziehun
8 : zortzi	31 : hogeita hamaika	900 : bederatziehun
9 : bederatz		1.000 : mila
10 : hamar	38 : hogeita hemezortzi	2.000 : bi mila
11 : hamaika	39 : hogeita hemeretzi	3.000 : hiru mila
12 : hamabi	40 : berrogei	4.000 : lau mila
13 : hamahiru	50 : berrogeita hamar	10.000 : hamar mila
14 : hamalau	60 : hirurogei	100.000 : ehun mila
15 : hamabost	70 : hirurogeita hamar	1.000.000 : milioi bat
16 : hamasei	80 : laurogei	1.000.000.000 : mila milioi (miliar bat)
17 : hamazazpi	90 : laurogeita hamar	1.000.000.000.000 : bilioi bat

Del veinte al cien se escriben así / Hogeitik ehunerainoko zenbakiak honela idatziko dira

41: berrogeita bat

69: hirurogeita bederatz

97: laurogeita hamazazpi

Las centenas se escriben unidas / Ehunekoak lotuta idatziko dira

300: hirurehun

500: bostehun

800: zortziehun

Los millares se expresan separados / Milakoak bananduta idatziko dira

4.000: lau mila

47.000: berrogeita zazpi mila

91.000: laurogeita hamaika mila

Los millones también se expresan separados / Milioikoak ere bananduta

1.000.000: milioi bat

4.000.000: lau milioi

100.000.000: ehun milioi

Del cien al mil se expresan uniendo las centenas y los millares mediante la partícula “eta”

Ehunetik milarainoko zenbakiak horrela idatziko dira: ehunekoak eta hamarrekoak “eta” partikularekin lotuta

225: berrehun eta hogeita bost

579: bostehun eta hirurogeita hemeretzi

A partir de mil, se sigue el mismo criterio
Milatik gorako zenbakiak idazteko, irizpide bera erabili

1.003: mila eta hiru

3.456: hiru mila, laurehun eta berrogeita hamasei

35.436: hogeita hamabost mila, laurehun eta hogeita hamasei

457.908: laurehun eta berrogeita hamazazpi mila, bederatziehun eta zortzi

LAS HORAS / ORDUAK

¿Qué hora es? / ¿A qué hora...?

la una/ a la una

las dos/ a las dos

las tres / a las tres

las seis/ a las seis

las doce/ a las doce

la una y cinco/ a la una y cinco

la una y cuarto / a la una y cuarto

las tres y media / a las tres y media

las tres menos cuarto/ a las tres menos cuarto

¿Hasta qué hora?

Hasta la una; hasta las dos y media

¿De qué hora a qué hora?

De diez a una

De ocho a dos

Zer ordu da? / Zer ordutan...?

ordu bata/ ordu batean

ordu biak/ ordu bietan

hirurak/ hiruretan

seiak/ seietan

hamabiak/ hamabietan

ordu bata eta bost/ ordu bata eta bostean

*ordu bat eta laurdenak; ordu bata eta laurden
/ordu bat eta laurdenetan; ordu bata
eta laurdenean*

hiru eta erdiak / hiru eta erdietan

*hirurak laurden gutxi(ago) / hirurak laurden
gutxi(ago)tan*

Zer ordu arte?

Ordu bata arte; ordu bi eta erdiak arte

Zer ordutatik zer ordutara?

Hamarretatik ordu bata arte/ordu batera

Zortzietatik ordu biak arte/ordu bietara

Al escribir la HORA EN CIFRAS, a las horas se les añade la marca plural y a los minutos la marca singular

ZENBAKIAK ZIFRAZ eman nahi direnean eta orduak deklinatu nahi direnean, orduei plural-marka erantsiko zaie eta minutuei singular-marka

a las 15:00	15:00etan
a las 15:30	15:30ean
a las 17:03	17:03an
a las 21:05	21:05ean
desde las 22:00 hasta las 21:00	22:00etatik 21:00etara/ 21:00ak arte
desde las 22:05 hasta las 22:10	22:05etik 22:10era

Las HORAS pueden escribirse también sin declinar
ORDUAK deklinatu gabe ere adieraz daitezke

De lunes a viernes

9:00 - 13:00

16:00 - 20:00

Sábados cerrado

Astelehenetik ostiralera

9:00 - 13:00

16:00 - 20:00

Larunbatetan itxita

FECHAS / DATAK

Para expresar la fecha en la parte superior de las cartas, se utilizan estos dos formatos

Gutunen goiko aldean data adierazteko bi formatu hauek erabiliko dira

En Donostia, a 3 de julio de 2005	Donostian, 2005eko uztailaren 3an
Donostia, 3 de julio de 2005	Donostia, 2005eko uztailaren 3a

A tener en cuenta estos dos números
Gogoan hartu bi zenbaki hauek

Donostia, 11/31 de julio de 2005	Donostia, 2005eko uztailaren 11/31
En Donostia, a 11/31 de julio de 2005	Donostian, 2005eko uztailaren 11n/31n

Las fechas que deban expresarse en el texto de la carta, se dan así
Gutunen testuan bertan data bat adierazi behar bada, honakoak erabiliko dira

2006/03/07; 2006-03-07; 2006/III/07; 2006-III-07

En respuesta a su escrito con fecha 2006-03-07 2006-03-07ko zuen idatziari erantzunez,...

Las formas **otsailak 6** o **hilak 6** también pueden utilizarse en las invitaciones o notas informativas, pero siempre en aposición. Hilabetea eta eguna, hau da, **otsailak 6** edo **hilak 6** formak ere erabil daitezke gonbitetan edo informazio oharretan, baina beti aposizioan jarrita (komen artean).

El jueves, 7 de marzo,
será la inauguración

*Ostegunean, martxoak 7,
inaugurazioa egingo dugu*

El 20 de junio,
domingo, nos casamos

*Ekainaren 20an, igandea/igandean/
igandearekin, ezkonduko gara*

Se clasifican en tres modos: siglas, símbolos y abreviaturas
Hiru eratan sailkatzen dira: siglak, ikurrak eta laburdurak

SIGLAS / SIGLAK

Se escriben en mayúscula y sin espacio
Siglak letra larriz eta jarraian idazten dira

BEZ (IVA), NAN (DNI)...

Declinar según la pronunciación de la sigla
Siglak, ahoskeraren arabera deklinatu beti

GFAk, BBVArekin, DEGIko...

Sin embargo, en algunos casos se escribirán con guión
Hala ere, zenbait kasutan marra jarri behar da

. cuando la última letra de la sigla coincide con el sufijo
siglaren amaieran eta atzizkiaren hasiera letra bera denean

BBK-ko, AEK-k

. cuando la sigla termina en -r y el sufijo comienza en vocal
siglaren amaieran -r letra eta atzizkiaren hasieran bokala dugunean

KOR-i, IKERZER-entzat

. en textos escritos en mayúscula y en títulos
letra larriz doazen testu zatietan eta izenburuetan

DYA-REN LAGUNTZA, EITB-KO EGITARAUA

SÍMBOLOS / IKURRAK

Se expresan sin puntos y se declinan al igual que el término que designan,
separando el símbolo y el sufijo con un guión: (m m-ko, €-tan, h-ko)

Punturik gabe idazten dira, eta azpian dagoen hitz hori bezalaxe
deklinatu behar da. Ikurra eta deklinabide-atzizkiaren artean
marratxoak jartzen da (mm-ko, €-tan, h-ko)

Algunos símbolos útiles /Hainbat ikur erabilgarri

g	gramo
kg	kilogramo
t	tona
km/h	kilometro orduko
l	litro
m	metro
cm	zentimetro
h	ordu
min	minutu
s	segundo
€	euro

ABREVIATURAS / LABURDURAK

Es la abreviatura obtenida eliminando letras de un término o frase.

A los términos abreviados se les añade un punto

Hitz edo esaldi bateko hainbat letra kenduta lortzen den letra-segida laburtua (zk., jn./and., erref....).

Puntuz idazten da (zenbat hitz, hainbat puntu) eta azpian dagoena irakurtzen da

Algunas abreviaturas/Hona hemen hainbat hitzen laburdurak

apartado de correos / posta-kutxa	P.-Ku.
casado / ezkondua	E/EZ
certificado / ziurtatua (postan)	ztua.
código postal / posta-kodea	P.-K.
cuenta corriente / kontu korrontea	ktu.kte., k.k.
departamento / departamentua	dptu.
derecha / eskuina	esk.
deuda, deber / zorra	Z
etcétera / eta abar	e.a.; etab.
factura / faktura	fra.; fak.
fecha / data	d.
firma / sinadura	Sin.
firmado / izenpetu(t)a	izpta.
izquierda / ezkerra	ezk.
nota, aviso / oharra	oh.
número / zenbakia	zk.
número de cuenta / kontu-zenbakia	ktu.-zk.
página(s) / orrialde(ak)	or(r).
peseta / pezeta	pzta.
por ejemplo / adibidez	adib.
señor / jauna	jn.
señora / andrea	and.,A.
sin fecha / datarik gabea	d.g.
soltero / ezkongabea	G/EG
teléfono / telefonoa	tel.
total a percibir, haber / hartzeko	H
visto bueno / ontzat emana	o.e.

Para la información general del establecimiento se utilizan carteles y rótulos / Jendeari informazio orokorra emateko errotulu edo kartelak erabiltzen dira establezimenduetan

Lista de avisos y rótulos más comunes / Ohar eta errotulu erabiliene zerrenda

a mitad de precio: **erdi-prezioan**

abierto: **zabalik**

abrimos los sábados por la mañana: **larunbat goizean irekitzen dugu;**

larunbat goizean zabalik

administración: **administrazioa**

ahora más barato: **orain merkeago**

almacén: **biltegia**

antes / ahora: **lehen / orain**

anuncios: **iragarkiak**

aparcamiento: **aparkalekua**

apresúrese: **zatoz lehenbailehen**

archivo: **agiritegia; artxiboa**

artículos fin de temporada: **denboraldi-bukaerako gaiak**

boletos para la cesta (de Navidad): **Gabonetako / Eguberrietako saskirako txartelak**

caballeros: **gizonezkoak**

cerrado los lunes por la mañana: **astelehen goize(t)an itxita; astelehenetan goizez ez dugu irekitzen / astelehenetan goizez itxita edukitzen dugu;**

cerrado por defunción: **heriotzagatik itxita**

cerrado por reformas: **berritze-lanengatik itxita; itxita, berritze-lanetan ari gara**

cerrado por vacaciones: **Itxita. Oporretan gaude**

cerrado: **itxita**

cesta de Navidad: **Gabonetako / Eguberrietako saskia**

cestas para la compra, utilízelas por favor: **erosketetarako saskiak, erabili mesedez**

cierre su bolsa aquí: **itxi (ezazu) poltsa hemen**

cita previa por teléfono: **ordua hartzeko, telefonoz deitu**

descanso semanal: **asteko atseden-eguna**

descuentos (viaje novios): **(eztei-bidaia) merkeago, deskontuak**

el libro de reclamaciones está a disposición del cliente: **bezeroak erreklamazio-liburua noiznahi eska dezake**

empuje; empujar: **bultza**

en venta: **salgai**

enseñe su bolso al salir: **erakutsi (erakuts ezazu) poltsa irteeran / ateratzerakoan.**

entrada por la otra puerta: **sarrera beste atetik; beste atetik sartu**

entrada: **sarrera**

entre sin llamar: **sartu atea / tinbrea jo gabe**

especialidad en pastel vasco: **Etxeko berezitasuna: euskal opila**
 espere su turno por favor: **zure txanda iritsi arte itxaron, mesedez/arren**
 espere un momento por favor: **itxaron pixka bat, mesedez / arren; zaude / egon pixka batean, mesedez / arren**
 existe un libro de reclamaciones a disposición del público: **erreklamazio-liburua (ba)dago, bezeroak erabili nahi izanez gero**
 facilite cambio, por favor: **txanponak eman, mesedez / arren**
 farmacia(s) de guardia: **guardiako farmazia(k) / botika(k)**
 festivos: **jaiegunak**
 fiesta patronal del gremio: **zaindariaren / patroiairen jaia**
 fin de serie: **azken salgaiak**
 gracias por su compra: **eskerrik asko hemen erosteagatik**
 gracias por su visita: **eskerrik asko etortzeagatik**
 gran surtido: **aukera handia / zabala; aukera paregabea; sekulako aukera**
 grandes facilidades de pago: **ordaintzeko erraztasunak; erraz ordaintzeko era / modua**
 grandes rebajas: **beherapen handiak, egundoko merkealdia**
 hay lotería de Navidad: **Gabonetako/Eguberrietako loteria dugu**
 hay lotería del Niño: **Erregetako loteria dugu**
 hay X(vainas, queso...) del país: **bertako/hemengo X (lekak, gazta...) dau(z)kagu/d(it)ugu**
 horario al público: **jendearentzako ordutegia**
 horario de verano: **udako ordutegia**
 horario: **ordutegia**
 la mejor calidad, aquí: **kalitaterik hoberena hemen**
 laborables: **lanegunak; astegunak**
 lavabo(s): **komuna(k)**
 liquidaciones: **likidazioak**
 liquidación por cese de negocio: **likidazioa negozio-jarduera uzteagatik; denda itxi aurretiko likidazioa**
 liquidación por renovación de existencias: **salgaien berritzea dela eta, likidazioa; salgaiak berritu aurretiko likidazioa**
 lista de precios: **prezioen zerrenda; prezio-zerrenda; prezioak**
 llame, por favor: **tinbrea / atea jo, mesedez**
 lo mejor al mejor precio: **hoberena preziorik onenean**
 los mejores precios: **preziorik onenak / hoberenak / beheratuena**
 lunes por la mañana descanso semanal: **astelehen goizez / goize(t)an atseden hartzeko itxita; astelehen goizez / goize(t)an itxita**
 mañanas/por la mañana: **goizez; goize(t)an**
 más barato imposible: **ezin merkeago**
 muchas gracias por su visita: **eskerrik asko / mila esker etortzeagatik**
 no cerramos al mediodía: **eguerdi(t)an ez dugu itxen**
 no fumar: **ez erre**
 no se admiten cheques: **ez dugu txekerik onartzen**
 no se admiten devoluciones: **ez da ezer itzultzea onartzen; ez dugu salgairik aldatzen**

no se admiten propinas: **ez dugu eskupekorik onartzen/hartzen**

Nº premiado en la cesta del 21 de diciembre: **abenduaren 21eko zozketan saritutako zk.**

ocasión: **aparteko aukera**

oferta de la semana/del mes: **asteko / hileko eskaintza**

oferta de Navidad: **Eguberrietako / Gabonetako eskaintza**

oferta especial del género de verano: **udako salgaiei eskaintza berezia**

oferta especial en el interior: **eskaintza berezia barruan; aparteko eskaintza barruan**

oferta(s) especial(es): **eskaintza berezia(k); aparteko eskaintza(k)**

oferta(s) (de) lanzamiento: **hasierako eskaintza(k)**

oferta(s) (de) última hora: **azken eskaintza(k)**

oferta: **eskaintza**

pida día y hora: **eskatu ordua eta eguna, eska itzazu eguna eta ordua**

planta baja: **behe-solairua / oina; beheko solairua / oina**

por favor, dejen aquí los bolsos: **poltsak hemen utzi, mesedez / arren**

por favor, no tocar: **ez ukitu, arren / mesedez**

por la compra de X le regalamos/regalo X: **X erosiz gero, X oparituko/ opari egingo di(zki)zugu**

precios extraordinarios: **paregabeko prezioak/prezio paregabeak**

precios muy interesantes: **prezioak oso modu onean**

precios muy rebajados: **oso prezio merkatuak/beheratuak**

precios: **prezioak**

primera planta (1º planta): **lehen solairua / oina (1. solairua/oina)**

probador(es): **aldagela(k)**

productos de Navidad: **Eguberrietako/Gabonetako produktuak / gaiak**

prohibida la venta de tabaco a menores de 16 años: **debekatua dago 16 urtetik beherakoei tabakoa saltzea**

prohibido el consumo de bebidas alcohólicas a menores de 16 años: **16 urtetik beherakoek debekatua dute alkoholdu edariak hartzea**

prohibido fumar: **ez erre**

promoción: **sustatze-aldia**

rebajas especiales: **Beherapen bereziak/ez-ohiko merkealdia**

rebajas: **beherapenak; merkealdia**

reservado: **erreserbatua; gordeta**

rómpase en caso de incendio: **sua piztuz gero/izanez gero, hautsi**

sala de espera: **itxaron-gela**

saldos: **merkealdia/salgai-hondarrak**

salida de emergencia: **larrialdietarako irteera; larrialdi-irteera**

salida: **irteera**

se (re)cogen encargos: **enkarguak hartzen ditugu**

se alquila: **alokatzeko; alokatu egiten dugu; errentan**

se cobran los arreglos en rebajas: **merkealdian konponketak kobratu egiten dira**

se ruega no tocar, le serviremos, gracias: **ez ukitu mesedez, geuk emango dizugu, eskerrik asko**

segunda mano, de: **bigarren eskukoa**

segunda planta (2º planta): **bigarren solairua/oina (2. solairua/oina)**

señoras: **emakumezkoak**

servicio a domicilio; se sirve a domicilio: **etxera eramateko zerbitzua; etxez etxeko zerbitzua;**

enkarguak etxeraino eramaten ditugu

servicios de señoras/caballeros: **emakumezkoen / gizonezkoen komunak**

servicios: **komunak**

siempre a su servicio: **beti zure zerbitzura; zuk nahi duzunerako (gauzkazu)**

silencio por favor: **isilik, mesedez**

sírvase usted mismo: **zuk zeuk hartu / har ezazu; har ezazu zeuk; aukera ezazu zuk zeuk**

sorteamos una hermosa cesta entre nuestros clientes: **saski eder bat zozketatuko dugu bezeroen**

artean

tablón de anuncios: **iragarki-taula**

tallas sueltas: **neurri solteak**

taller: **lantegia; tailerra**

tardes/por la tarde: **arratsaldez / arratsaldetan**

tire; tirar: **tira; erakarri**

todo más barato: **dena merkeago**

traspaso: **eskualdatzea; lekualdatzea**

últimos días: todo a 6, 12 o 18 €: **azken egunak: guztia 6, 12 edo 18 eurotan**

últimos días: **azken egunak**

últimos pares: **azken pareak**

use siempre los guantes: **erabil itzazu beti eskularruak; erabili beti eskularruak**

vea nuestros precios: **ikusi / ikus itzazu gure prezioak**

vestuarios: **aldagelak**

volvemos enseguida: **berehala / itzuliko gara; segituan etorriko gara**

X % de descuento: **% X(e)ko beherapena**



Modelos de documentos de trabajo
Lanerako idazki ereduak

Cartas comerciales
Gutun komertzialak

Impresos
Inprimakiak

Contratos
Kontratuak

Modelos de
documentos
de trabajo



Lanerako
idazki
ereduak

ESTRUCTURA DE LA CARTA / GUTUNAREN EGITURA

① Bidaide Bidaiak
Konstituzio enparantza, 5
20003 Donostia
(Gipuzkoa)

② 2005eko urriaren 20an

③ Agur t'erdi:

④ Gipuzkoako Turismo Bulegoak atsegin handiz gonbidatzen zaitu 2005eko azaroaren 2an, iluntzeko 20:00etan, Donostiako Kursaal Elkargunean Gipuzkoako Turismo Sariak banatzeko egingo den ekitaldira.

⑤ Adeitasunez,

⑥ Mikel Agirre Perez
Gipuzkoako Turismo Bulegoko kudeatzailea

⑦ Oharra: Etorri behar baduzu, konfirma ezazu mesedez urriaren 28rako

- ① Dirección de la parte destinataria / **Helbidea**
- ② Fecha / **Data**
- ③ Saludo / **Agurra**
- ④ Texto / **Textua**
- ⑤ Despedida / **Bukaerako agurra**
- ⑥ Firma / **Sinadura**
- ⑦ Notas / **Oharrak**

FRASES MODELO PARA CARTAS / GUTUNETAKO ESALDI EREDUAK

1 DIRECCIÓN DESTINATARIO/A / HELBIDEA

Véase 1.2. Direcciones (pag. 4) / **Ikus 1.2. Helbideak (4 or.)**

2 FECHA / DATA

Véase 1.3. Números, Horarios y fechas (pag. 8)
Ikus 1.3. Zenbakiak, Ordutegia eta Datak (8 or.)

3 SALUDOS / HASIERAKO AGURRAK

Modelo formal / **Eredu formala**

Un saludo

Agur t'erdi

Muy señor mío: / Muy señora mía:

Jauna:/ Jaun hori: / Andrea: / Andre hori:

Muy señores míos: / Muy señoras mías:

Jaunak: / Jaun horiek: / Andreak: / Andre horiek:

Señoras y señores:

Jaun-andreak:

En caso de desconocer si la carta tendrá receptor o receptora:

Ez badakigu gutunaren hartzailea jauna edo andrea den

Señor/Señora:

Jauna/Andrea:

No es necesario el término “agurgarri”, “jauna” o el añadido “hori” por sí mismas son expresiones de cortesía / **Ez da beharrezkoa “agurgarri” gehitzea, “andrea” edo “hori” hitzek badute kortesiazko kutsua**

Estimado/a director/a:

Zuzendari hori: / Zuzendari jaun/andrea:

Modelo informal / **Eredu hurbila**

Hola, Miren:

Kaixo, Miren:

Querido amigo: / Queridas amigas:

Adiskide: / Adiskide hori: / Adiskideok: / Adiskide horiek:

4 TEXTO / TESTUA

Frases modelo en función de su objetivo
Esaldi ereduak helburuen arabera

Respuestas / **Erantzutekoak**

En respuesta a su carta del 29 de diciembre, adjunto le remito los datos solicitados:

Abenduaren 29ko zure gutunari erantzutera natorkizu. Hona hemen eskatu zenizkidan datuak:

En cuanto al pedido con fecha 30-10-04, le envío lo solicitado.

Zure 04-10-30eko eskaerari erantzunez, honekin batera bidaltzen dizut bertan eskatutakoa.

En relación a su queja (reclamación) queremos comunicarle lo siguiente:

Zure kexari (erreklamazioari) erantzunez, zera adierazi nahi dizugu:

De acuerdo con la conversación telefónica mantenida con usted,...

Telefonoz adostutakoa kontuan hartuz,...

Solicitudes / **Eskatzekoak**

Le agradeceríamos nos enviara mayor información sobre los productos detallados a continuación.

Eskertuko genizuke behean adierazten dizkizugun produktuei buruzko zehaztasunak bidaltzea.

Quisiera recibir los productos abajo detallados.

Behean adierazten dizkizudan produktuak jaso nahi nituzke.

Comunicaciones / **Jakinaraztekoak**

Le hacemos saber que hemos cambiado de domicilio.

Honen bidez jakinarazi nahi dizugu helbidez aldatu garela.

Envíos / **Bidaltzekoak**

Adjunto remito los datos solicitados.

Honekin batera eskatutako datuak bidaltzen dizkizut.

Quejas / **Kexatzekoak**

Deseo transmitirle mi queja por el material recibido.

Jaso dugun materiala dela eta, gure kexa adierazi behar dizugu.

Disculpas / **Barkamena eskatzekoak**

Le(s) ruego disculpe(n) mi error.

Barkatu nire hutsegitea.

Le rogamos nos disculpe por el retraso en el envío del pedido.

Barkamena eskatu nahi dizugu zure eskaera bidaltzeko orduan izan dugun atzerapenagatik.

5 DESPEDIDAS / BUKAERAKO AGURRAK

Fórmulas de agradecimiento / **Eskerrak ematekoak***Agradeciendo de antemano...***Aldez aurretik eskerrak emanaz,...***Muchas gracias por su ayuda***Mila esker/eskerrik asko zure/zuen laguntzagatik,**Cuando se ha realizado una solicitud / **Zerbait eskatu denean erabiltzekoak***Con la esperanza de que pronto tendré/tendremos noticias tuyas/vuestras...***Zure/zuen berri laster izango dudalakoan/dugulakoan...***Quedo/Quedamos a su/vuestra disposición***Zure/zuen zain geratzen naiz/gara,***Esperando su contestación,***Zure/zuen erantzunaren zain geratzen naiz/gara,***Esperando que mi/nuestra petición se tenga en cuenta,...***Nire/gure eskaria kontuan hartuko duzu(e)lakoan,...**"sin más" y similares / **Gaztelaniazko "sin más" en parekoak****Oraingoz besterik ez,****Besterik gabe,**"hasta la vista" y similares / **Gaztelaniazko "hasta la vista" eta antzekoak adierazteko***Sin más, hasta la próxima,***Ongi izan eta hurrengora arte/ikusi arte,***Hasta pronto,***Laster arte,**"le saluda", "atentamente" y similares / **Gaztelaniazko "le saluda", "atentamente" eta antzekoak adierazteko***Un saludo***Agur / Agur t'erdi***Me/Nos despido/despedimos,***Agurtzen zaitut/zaituztet/zaitugu/zaituztegu,***Mi/Nuestro saludo más sincero***Har ezazu/ezazue nire/gure agurrik beroena,***Atentamente***Begirunez / Adeitasunez / Adeitasun osoz**

MODELO DE SOLICITUD DE INFORMACIÓN / INFORMAZIO ESKAERAREN EREDUA

1 Zuen erref.: A/ST-45
Gure erref.: B/GI-305

2 ELEKTRONIK SA
Lasuen kalea 65
48006 Bilbo (Bizkaia)

3 Donostian, 2005eko urriaren 7an

4 Jaun hori,

5 Gutun honen bidez, irailaren 26ko zuen eskutitza jaso dudala adierazten dizut.

6 Harekin batera bidalitako katalogoak azertu ditut eta eskertuko nizuke behean adierazitako produktuen informazio zehatzagoa bidaltzea lehenbailehen. Batez ere, informazio teknikoa interesatzen zaigu.

ü Z-46 Koloretako telebista-saila
ü KULMA ordenagailu-saila

7 Zure erantzunaren zain,



8 Izpta.: Andolin Garai
Erosketa-burua

- 1 Referencias y motivo / **Erreferentziak eta gaia**
- 2 Dirección de la destinataria / **Hartzailearen helbidea**
- 3 Lugar y fecha / **Lekua eta data**
- 4 Saludo / **Hasierako agurra**
- 5 Fórmula introductoria / **Hasierako esaldia**
- 6 Solicitud de información / **Informazio eskaera**
- 7 Despedida: *A la espera de su contestación* / **Bukaerako agurra**
- 8 Firma: *Fdo.* / **Sinadura**

SOLICITUD DE MATERIAL / MATERIAL ESKAERA

1 Zuen erref.: A/ST-57
Gure erref: B/GI-367

2 ELEKTRONIK SA
Lasuen kalea 65
48006 Bilbo (Bizkaia)

3 Donostian, 2005eko azaroaren 17an

4 Jaun-andre horiek,

5 2005eko azaroaren 8an bidali zeniguten eskaintza aztertu ondoren, zuen Z-46 saileko telebistak eskatzea erabaki dugu.

6 Eskatzen dizkizuegun telebista-eredu eta kopuruak zehazturik daude, honekin batera bidaltzen dizuegun ESKAERA-ORRIAN. Baita emateko epea eta ordaintzeko era ere.

7 Eskera-onarpena eta materiala laster jasoko dugulakoan, agur t'erdi.



8 Izpta.: Andolin Garai
Erosketa-burua

1 Referencias y motivo / **Erreferentziak eta gaia**

2 Dirección de la parte destinataria / **Hartzailearen helbidea**

3 Lugar y fecha / **Lekua eta data**

4 Saludo / **Hasierako agurra**

5 Fórmula introductoria / **Hasierako esaldia**

6 Solicitud / **Eskera**

7 Despedida: *Esperando recibir pronto la admisión de solicitud y el material, un saludo* / **Bukaerako agurra**

8 Firma: *Fdo.* / **Sinadura**

CERTIFICADO / EGIAZTAGIRIA

① Gipuzkoako Merkatarien Taldea
Garibai kalea 24
20004 DONOSTIA

② **EGIAZTAGIRIA**

③ Nik, Ainhoa Serna Garrok, Gipuzkoako Merkatarien Taldeko zuzendari naizenez, honako hau **EGIAZTATZEN DUT:**

④ Alazne Kortajarena Egañak, 2004ko azaroaren 15etik 16ra bitartean, Gipuzkoako Merkatarien Taldeak antolatutako "Kexak eta Erreklamazioak bideratzeko moduak" izeneko ikastaroan parte hartu duela.

⑤ Horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, egiaztagiri hau egiten dut, interesdunak hala eskaturik.

⑥  Izpta.: Ainhoa Serna

⑦ Donostian, 2006ko azaroaren 19an

① Dirección destinatario / **Helbidea**

② Título: *Certificado* / **Izenburua**

③ Datos de persona certificadora: *CERTIFICO QUE* / **Egiaztatzailearen datuak**

④ Motivo de la certificación / **Egiaztapenaren zioa**

⑤ Fórmula final: *Expendo este certificado a instancias de la interesada, para que así conste y surta los efectos oportunos.* / **Bukaerako esaldia**

⑥ Firma: *Fdo.* / **Sinadura**

⑦ Lugar y fecha / **Lekua eta data**

CONVOCATORIA DE REUNIÓN / BILERA-DEIA

- 1 Patxi Urretxu, Kalitate Burua
Etxekit Eraikuntzak SA
Errotaburu pasealekua 9, 1.
20018 DONOSTIA

2 BILERA-DEIA

- 3 Honen bidez, Etxekit Eraikuntzak SAko Zuzendaritza Batzordearen ohiko bilerarako dei egiten dizut:

- 4 **Eguna:** 2005-05-10 (asteartea)
Ordua: 11:00
Tokia: Bilera Gela Nagusia (Errotaburu Paselekua 9, Donostia)

- 5 **Aztergaiak:**

1. Aurreko bilerako agiria irakurri eta, hala badagokio, onetsi
2. Donostiako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak elkarrekin finantzatuko duten Donostiako Zubi Berriaren proiektua gainbegiratu
3. Barne Auditoretzaren azken datuen berri eman
4. Kalitate Atalaren proposamena
5. Eskariak eta galderak



- 6 **Izpta.:** Arantxa Igurain
Gerentea

- 7 Donostian, 2005eko maiatzaren 5ean

- 8 Oh.: Bertaraterik ez baduzu, jakinarazi, mesedez.

- 1 Datos de la parte destinataria / **Hartzailearen datuak**
- 2 Título: *Convocatoria de reunión* / **Izenburua**
- 3 Organo que se reúne y convocatoria / **Biltzen den organoa eta deia**
- 4 Datos: *día, hora, lugar* / **Zehaztasunak**
- 5 Orden del día: *Temas a tratar* / **Aztergaiak**
(1). *Lectura del acta anterior y aprobación si procede*
(...) *(...)*
(5). *Ruegos y preguntas*
- 6 Firma: *Fdo.* / **Sinadura**
- 7 Lugar y fecha / **Lekua eta data**
- 8 Notas: *En caso de no poder asistir, agradeceríamos nos lo comunicara* / **Oharrak**

ACTA DE REUNIONES / BILERA-AKTA

1 BILERA-AKTA

- 2 2005eko maiatzaren 10ean, goizeko 11etan, Etxekit Eraikuntzak SAKo Zuzendaritza Batzordeak egin du bilera.

3 Bertaratuak

- Arantxa Igurain, Gerentea
- (...)
- Javier Ruiz, Idazkaria

4 Bertaratu ezina adierazi dutenak

- Patxi Urretxu, Kalitate Burua


5 Esan-eginak

1. Batzordekideek aho batez onartu dute aurreko bilera-akta.
2. (...)

6 Erabakiak

1. Donostiako Zubi Berriaren proiektua ontzat eman da (4 boto alde, 1 aurka).
2. (...)

7 Besterik gabe, bilera amaitutzat eman dugu.



8 Javier Ruiz
Idazkaria



* O.E.
9 Arantxa Igurain
Gerentea

* Ontzat emana

- 1 Título: *Acta de reunión* / Izenburua
- 2 Día y hora de la reunión y órgano reunido / Bileraren eguna, ordua eta bildu den organoa
- 3 *Asistentes*
- 4 *Han comunicado su no asistencia*
- 5 *Desarrollo*
- 6 *Decisiones*
- 7 Despedida: *Sin más, se da por finalizada la reunión* / Bukerako agurra
- 8 Firma: *V.B.: Visto Bueno* / Sinadura

RECLAMACIÓN / ERREKLAMAZIOA

Reclamación contra la compañía de seguros presentada en la Oficina de Consumo
Kontsumitzaileen Bulegoan aseguru etxearen kontra jarritako erreklamazioa

1 ERREKLAMAZIOGILEAREN DATUAK

Izen-abizenak: Juanmari Urresti, Juanmari Harategia
Helbidea: Juanmari Harategia, Txirrita pasealekua 4 **Herria:** Donostia 20010
IFK/NA zk: 30.875.988-F **Tel:** 943786574

2 ERREKLAMAZIOA JASOKO DUENAREN DATUAK

Enpresaren izena: Le Bon Vivant Aseguruak
Helbidea: Madril Hiribidea 45 **Herria:** Donostia 20011
IFZ/NA zk: 45.755.444-L **Tel:** 943334655
Jarduera: Aseguru enpresa

3 ERREKLAMAZIOAREN ARRAZOIAK ETA HELBURUA

Dendako biltegian ura ateratzen zenez, aseguru etxera deitu genuen eta iturgina berehala etorri zen. Lurra altxatu beharra izan zuen hodia konpontzeko. Hodia konpondutakoan jarritako azulejoak desberdinak dira, antza, ez dituzte lehen zeudenak bezalakoak aurkitu.

Uste dugu lur guztia aldatu beharko luketela, ez baita gure kontua azulejo berdinak aurkitu ez izana.


Aseguru etxeak ez digu jaramonik egiten. Hodia bera eta hark sortutako kaltea konpondu dutela diote. Lurra aldatzen ez badute guk aldatu behar dugu, baina orduan zertarako ordaindu aseguruak?

4 ERREKLAMAZIOAREN EGUNA

2004ko abenduaren 22a

5 ERANTSITAKO AGIRIAK

- ü Polizaren kopia
- ü Polizaren ordainagiria



6 Izpta: Juanmari Urresti
Juanmari Harategiko nagusia

- 1** Datos de la persona/empresa que reclama: nombre y apellidos, dirección, CIF/DNI
- 2** Datos de la persona/empresa receptora: nombre, dirección, CIF/DNI, actividad
- 3** Motivos y objeto de la reclamación
- 4** Fecha de reclamación
- 5** Documentos adjuntos: copia y factura de la póliza
- 6** Fdo.

RECLAMACIÓN / ERREKLAMAZIOA

Carta de reclamación enviada a la empresa proveedora

Materiala bidali behar duen enpresa hornitzaileari bidalitako erreklamazio gutuna

1 Zuen erref.: A/ST-78
Gure erref.: B/GI-589

2 ELEKTRONIK SA
Lasuen kalea 65
48006 Bilbo (Bizkaia)

3 Donostian, 2005eko azaroaren 24an

4 Jaun hori,

Jaso berria dugu 2005eko azaroaren 22an bidalitako materiala, eta guztia aztertu ondoren, erreklamazioa egin behar dizuegu.

5 Jasotako materiala bat dator guk 2005eko urriaren 7an bidalitako eskaerarekin. Baina geroztik, 2005eko urriaren 10ean beste eskaera bat egin genizuen, lehenengoari aldaketak ezarrita. Zuek 2005eko urriaren 14ko gutunean onartu zenizkiguten aldaketok, baina ez dituzue kontuan hartu.

6 Beraz, jaso ditugun C3 332 KOLORETAKO 4 TELEBISTA 18"koak, itzuliko dizkizuegu, eta ordezeko beste hiru telebistak ahalik eta azkarren hartu nahi genituzke.

7 Aldez aurretik eskerrak emanetz,



8 Izpta.: Eneko Gomez
Biltegi-burua

1 Referencias y motivo / **Erreferentziak eta gaia**

2 Dirección de empresa a la que se reclama / **Erreklamazioa jasoko duen enpresaren helbidea**

3 Lugar y fecha / **Lekua eta data**

4 Saludo: *Estimado señor* / **Hasierako agurra**

5 Motivo de la reclamación / **Erreklamazioaren zioa**

6 Objeto de la reclamación / **Erreklamazioaren helburua**

7 Despedida: *Agradeciendo su colaboración* / **Bukaerako agurra**

8 Firma: *Fdo.* / **Sinadura**

FAX / FAXA

F A X A

NORK Remitente	Ogi Goxo okindegia, bulego nagusia		
NORI Receptor	Miren Goikoetxea, ogi Goxo Amarako denda		
FAX ZK. Nº fax	943 098 908	Orri-kopurua, hau barne Nº páginas (incluida ésta)	1

Mezua / Mensaje

Lankide hori:

Atzo agindutako pastel eskaera ezin izan dizugu prestatu.

Hala ere, ahalik eta azkarren prestatu eta bidaliko dizugu.

Adeitasunez

Data / Fecha:
05/12/23

HOJA DE PEDIDO / ESKAERA-AGIRIA

Bulegix
Bulegorako materiala
Errotaburu 19, 10
20018 Donostia

Data/Fecha: 2005 / 04 / 19 **Eskaera-zk./Nº de pedido:** 4306-B

Señor/Señora: María Teresa Herrera Belate **Jauna/Andrea**

